

ARALAR'era begira (Inozentzio abadeari)

1993'ko iraillaren 2'gna.

Ayerbe'tar Inozentzio apezari.
Agur euskaltzale ederretsi ori!

Artu dogu gure etxean zuk idatzitako "Apezak sakristiara".
Zure liburu au Aralar'en zuk niri emondakoa da, orain laupabost urte.
Esanbearrean nauzu oso atsegiña izan dodala. Gaiak, euskera goxo ta errikoia gaitik...
Tamala da, benetan, au bezelako beste lan batzuk idazten jarraitu ez izatea, zeu Tako idazle jatorrak bear ditugu-ta.
Nire azkenengo iru liburuak bialtzen dizkizut, atsegin izan dakizuzala itxaronez.
Ekin eta aurrera euskeraren onerako.
Biotzez agurtzen zaitut.

ZUBIRI'tar Iñaki
EUSKERA ZALEAK ALKARTEAREN
Lendakariak

ARALAR-IZADIAN

Euskalerria ederra da beronen mendi, baso, ibai, itxaso ta errietan, baiña edertasun ori urretik ikusi nai dauanak, ondo egingo dau Aralar mendira igotea.

Gure mendi-gaiñerik geienetan daukaguz ikuspegi oso ederrak, baiña ederrenetariko dogu Aralar-gaiñekoa.

ARALAR-KONDAIRAN

Aralar Naparroa'ko Erreiñuaren barruan go-

goangarria izan da eta Bakalerra onetako bakaldun edo errekeak maitasunez begiratzen eutsoen toki oneri, Santutegi gurgarri lez.

Eleizearen barruan aurkitzen da, zaletasun au ziurtatzeko, iruditegi ederra. Urte batzuk dirala lapurrak eroan eben baiña geiena barriro eskuratu al izan da eta antxe dago.

Baiña ez da kondaira utsa. Lenagoko zerbait gogoratzen dausku Aralar'ek. Mendi atseingarri onek ba-dau zer-ikusia Euskalerriaren zaindari dan Mikel Goiaingeruagaz eta Gabonetako ospakizun euskaldunetan gure erri-girora sartzen dan Olentzero'gaz. Jakingarriak eta ederrak dira gure arbasoakandik datorkiguan.

zan edesti
oneik.

INOZENTZIO ARARLAR'en

Santutegi
onetan egiten
dau bere abade-
lana aspaldiko
urteetan Ino-
zentzio abade
euskaldunak.


Sarritan ikusi
dogu abade au
Kardaberaz'ta-
rren batzarretan
eta Euskera-
zaintzaren gi-
roan. Euskal-
dun barria dala
diñosku, gaur
aurkezten
dogun liburu
onetan, baiña
bera beti euske-
raz ondo egiten
ikusi dogu.

Ara joaten
garanean, sarri-
tan, maitekiro artzen gaitu.

Bere gurari bizia euskerea Naparroan zain-
tzea da. Oraintsu ibilladi baten izan gara Gar-
bizu deritxon Aralar-barreneko errian eta
asko pozu giñan edatetxean edaria eskintzen
egoan andreari euskeraz egiten entzun geun-
tsanean.

LIBURUA

Zubiri'tar Iñaki'k eskuratu dausku
APEZAK SAKRISTIARA deritxon Inozen-
tzio jaunaren liburua, 1985'ean idatzia.



Abadearen
bizitza giro ez-
bardiñetan
agertzen dau.
Eta azkenean
iztegitxu bat
dakar, ulergai-
txak litzakezan
itzak argitzeko.

Beste napar
baten liburua,
Larrainzar' ena,
irakurri dogu
oraintsu, baiña
zelako aldea
bion artean,
mundu ezbar-
din bi dira. Az-
kenengo au,
gaiñera erderaz
dago eta orain
ogei ta amar bat
urte izan zan
giroaren ikus-
pegi bat ager-
tzen dau.

Zorionak
idazleari eta ja-
rraitu dagiala
idazten.

OLAZAR'tar Martin'ek.

* * *